

txintxarri



30 urtez jaien berri ematen

Sanpedroetako nahiz Sorjin Jaietako egitarauak, elkarrizketak, festen aurrekariak... jaso ditugu zenbaki berezi honetan / 3-26



TXINTXARRI

 **Ges**
aseguruak

 **Gora San Pedro Jaiak!**
Gora Lasarte-Oria!

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Aurrezkiak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!



SAN PEDRO JAIK 2024



LASARTE-ORIA
UDALAK - AYUNTAMIENTO

**TTAKUN KULTUR
ELKARTEA**

PATXINTXI SARIAK

EKAINAK 28 | 12:15

UDALETXE ZAHARREKO BALKOIAN
BEA EGIZABALEKIN

MAKARRONADA ETA BUSTI BLAI JAIA

EKAINAK 28 | 12:30

12:30 | TXUPINAREN ONDOREN OKENDORA
ETA KALEJIRA ATSOBAKARRERA
14:00 | MAKARROI JAN HERRIKOIA | UR JOLASAK

SORGIN DANTZA

EKAINAK 28 | 16:30

ORIAKIK
OKENDO PLAZARA

KANTU DANTZA JIRA

EKAINAK 29 | 11:30

SAGARDOTEGI KALETIK
HERRIAN BARRENA

SAGARDO DASTAKETA

EKAINAK 29 | 18:00

OKENDO PLAZAN

**Txintxarri**

Hiru hamarkada azkar ala mantso igaro ote diren erlatiboa da, denbora tarte horretan gertatutako guztia segun eta zer izan den, nolakoa izan den eta nork bizi izan duen. Herriko festekin gertatu ohi dena da egunak ordu bilakatzen direla; orduak, minutu; minutuak, segundo; eta segundoak, ehuneko.

Sorgin kuadrillak Isla plazatik Okendora jaitsi eta Xumela

'Jayak aizue, jayak!'

koruarekin batera txupinazoa jaurtitzen dutenetik Vulcano etxeak su festa egiten duenera arte sei egun pasako dira. Festa giroaz gozaten eta parrandan dabiltenentzat laburragoa izango da tartea, emanaldiak egiten dituztenentzat ere bai,

ziur asko; festetan lan egin beharko dutenentzat, berriz, astiroago biratuko dute erlojuen orratzek.

TXINTXARRI aldizkariak 30 urte eta hilabete batzuk daramatza Lasarte-Oriaren egunerokoaren berri ematen; jaiak barne,

jakina. 1994ko ekainaren 24an kaleratu genuen *Jayak aizue, jayak!* izenburudun gehigarria, eta, ohartzera, esku artean duzuen hau argitaratu dugu.

Hiru hamarkada azkar ala mantso igaro ote diren erlatiboa da guretzat ere: ziztu bizian ba-

tzuetan, barraskiloen pare bes-teetan. Erlatiboa ez dena, hauxe: herriarekiko dugun konpromisoa. Gertutasunez eta euskaraz jarraituko dugu lanean beste 30 urtez, gutxienez.

TXINTXARRI-ko lantaldeko kideon partez, disfruta ditzazuela herriko festak, sanpedroak eta Sorgin Jaiak! Argazki kamera eta koaderno, alboan izango gaituzue, 1993ko udazkenetik beti egin izan dugun bezala.

zitek zientzi eskola

Beti zuei laguntzeko prest!

Goikale Kalea 12, behea.
Lasarte-Oria. 943-36 31 06
info@zitek-akademia.com
www.zitek-akademia.com

Laguntza taldeak
Ikasketa teknikak
Mekanografia

2024-2025 IKASTURTEA
(irailaren 2tik aurrera)

Gorde lekua eta aukeratu eskolen ordutegia

· LH - DBH -
BATXILLERGOA - ZIKLOAK
· Zientziak | letrak

· HIZKUNTZAK: ingelera eta Frantsesa


2024 UDAKO IKASTARROAK
(uztailaren 1etik aurrera)

BIDEO LAGUNAK

Cadena Estrella Azul
ELECTRODOMÉSTICOS

Ondo pasa
San Pedro
Jaietan!

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA



Deskontu eta
beherapen handiak!



Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34



Txupinazotik azken zezen suzkora;
kolore, musika eta adin
guztietarako ekimen ezberdinez
betetako bost egun izango dira
San Pedro Jaietan.



Ekainak 28, ostirala

10:00 Ur festa, Maialen Chourraut kiroldegia. 5-12 urte arteko neska-mutilentzat. Parte hartzaileek igeri egiten jakin behar dute.

12:00 Haurren txupinazoa. Jaiei hasiera emango zaie.

ONDOREN, erraldoi eta buruhandien konpartsa abiatuko da, eta herriko kaleetatik barrena ibiliko

da Oaintxe in deu Txaranga eta Gautxori Txaranga lagun dituztela.

12:15 Gure Patxintxiak sarien banaketa, udaletxe zaharreko balkoia (Ttakun KE).

12:30 Lasarte-Oriako eta Hernaniko Musika eskoletako ikasleen batukada, herritik zehar.

12:30 Haurrak Okendo plazan elkartu eta kalejira Atsobakar parkeraino. (Ttakun KE).

14:00 Haurrentzako herri bazkaria, Atsobakar parkea (Ttakun KE).

ONDOREN, Ur jolasak, Atsobakar parkean (Ttakun KE).

ONDOREN, Busti Blai jarduera, Atsobakar auzoan zehar (Ttakun KE).

16:30 Sorgin Dantza abiatuko da Oriatik (Ttakun KE).



Okela

Maialen

- ARTISAU URDAITEGIA
- ETXEKO JANARIA
- BERTAKO HARAGIA

Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Kale Nagusia, 41 LASARTE-ORIA • Tel.: 943-36 39 12
Nafarroa kalea, 3 LEGAZPI • Tel.: 943-73 18 25
(Maialen) Karmelo Etxegarai, 10 DONOSTIA • 943-31 40 43 (Ilgandetan irekita)



18:00 Gautxori Txaranga
Atsobakarretik aterako da.

18:30 Oaintxe in deu! txaranga
kultur etxetik aterako da.

19:00 Txupinazoa eta Makelurren pregoia
udaletzeko balkoitik, Okendo plaza.
Oaintxe in deu eta Gautxori
txarangekin.

19:30 Dinbi Banda
batukada, herriko kaleetatik
barrena.

20:00 Dantzaldia Ibai
Berriak taldearen eskutik,
Isla plaza.

23:00 Lasarte-
Oriako danborrada,
Kale Nagusitik
(ATLO).

23:30 En Tol
Sarmiento taldearen
kontzertua,
Okendo plaza.

00:00 DJ Txurru,

Oriarte Landaberi patioiko gazte
gunea.

00:00 I Love 80's band taldearen
kontzertua, Jaizkibel plaza.

Ekainak 29, larunbata

SAN PEDRO EGUNA

07:00 Xexenak Saka
ganadutegiarekin, Sasoeta
eskolako xexen plaza.

11:00 Herri meza,
San Pedro parrokia.

11:30 Haurrentzako parkea,
Isla plaza.

11:30 Xumelaren kantu eta
dantza jira abiatuko da
Sagardotegi kaletik, eta herriko
hainbat kaletan barrena ibiliko da
(Ttakun KE).

12:00 Lerroko dantzak,
Okendo plaza (Biyak Bat).

12:30 Herri kirolak,
Elizatze plaza.



13:00 Makelurri omenaldia,
Manuel Lekuona Kultur Etxea.

14:00 Bazkari herrikoia,
Andatza plaza
(Sasoeta Sasoian).

18:00 Sardina jan herrikoia,
Okendo plaza (Aterpea).

18:00 Sagardo dastaketa
eta erromeria,
Okendo plaza (Ttakun KE).

19:00 Biyak Bat eta
Hernaniko Goiz Eguzki
elkarteko abesbatzen
emanaldia, Ama
Brigitarren komentua.

21:00 DJ Nemux Academy,
Oriarte Landaberi patioiko
gazte gunea.

22:30 Bertso saioa,
Manuel Lekuona kultur etxean.

Bertsolariak: Ane Labaka, Lierni
Rekondo, Maialen Lujanbio, Andoni
Egaña, Aner Peritz eta Nerea Ibarzabal.

Gai jartzailea: Amaia Agirre.

22:45 Entzierrotxoa zezen simulatuekin,
Kale Nagusia (LOZET).

23:00 Zezensuzkoa,
Kale Nagusia (LOZET).

23:30 Bulego taldearen kontzertua,
Okendo plaza.

23:30 Dantzaldia Estrella
Central taldearen eskutik,
Isla plaza.

00:00 DJ Carlos Jean,
Jaizkibel plaza.

00:00 Nemux disko festa,
Oriarte Landaberi patioiko
gazte gunea.

02:00 Star Ways taldearen
emanaldia, Okendo plaza.

Ekainak 30, igandea

06:00 Gautxori txarangaren
diana, kaleetan zehar.

06:30 Txokolate jana,
Elizatze plazan.



Gora San Pedro Jaiak!

Zirkuito ibilbidea, 12 20160 • LASARTE-ORIA
Tel. 943-37 14 40 Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriaslasarte@carroceriaslasarte.com

Carrocerías Lasarte Karrozeria

Trebeak gara kolpe
handiak konpontzen

• Kabina labeduna

• Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala

• Tapizatuaren garbiketa

Garcia

AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ

Tel: 609 47 94 78

info@garciabus.com - www.garciabus.com



*San Pedro Jai ezin
hobeak igaro!*

• Edozein eratako
bidaiak egiteko
zerbitzu aproposak

• Bestelako zerbitzuak



07:00 Xexenak Saka ganadutegiarekin, Sasoeta eskolako xexen plaza.

11:00 San Pedro Jaietako Boloak eta Toka Tirada Michelin kirol guneko bolatokian (Ostadar SKT).

11:30 13 urtetik gorakoentzako parkea, Andatza plaza.

11:30 Haurrentzako parkea, Loidibarren pilotalekua (10 urte gehienez).

12:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsa herritik barrena, Oaintxe in deu! txaranga lagun dutela (LOZET).

12:00 La Encina Virgen de Guadalupe koro eta dantza taldeen emanaldia, eta Extremadurako "migen" dastaketa, Okendo plaza (Extremadurako Etxea).

13:00 Zero Sette akordeoi orkestraren kontzertua, Okendo plaza.

16:30 13 urtetik gorakoentzako parkea, Andatza plaza.

17:30 Gaztetxoan danborrada, Kale Nagusitik abiatuko da eta herriko kaleak alaituko ditu (ATLO).

18:30 Dantza lehiaketa eta minidiskoa, Jaizkibel plaza (Sasoeta Sasoain).

20:00 Maruja Limón taldearen emanaldia, Okendo plaza.

20:00 DJ Nikorekin dantza piezak, Isla plaza.

22:00 Alargun Beltzak taldearen kontzertua, Okendo plaza.

22:45 Entzierrotxoaren zezen simulatuekin, Kale Nagusia (LOZET).

23:00 Zezensuzkoa, Kale Nagusia (LOZET).

23:00 Ander Hazas, Oriarte Landaberri patioiko gazte gunea.

00:00 DJ Txolas, Oriarte Landaberri patioiko gazte gunea.

Uztailak 1, astelehena

11:00 Pilota txapelketako finalak, Loidibarren pilotalekua (Intza). Benjamin, Alebin A, Alebin B eta Infantil mailako neurketak.

11:30 Ur parkea, Andatza plaza.

16:30 Ur parkea, Andatza plaza.

17:00 Txakurren erakustaldia, Sasoeta ikastetxeko xexen plazan



Gora San Pedroak!

Ezagutu gure ostatuak, bizipen bikaina izango da!



nekatur

Euskadiko landa ostatuen elkarte

www.nekatur.net



LASARTE-ORIA

GORA SORGIN JAIK
ETA SAN PEDROAK!

JATETXEAREN ESKAINTZA FESTETAN:
Ostirala 28: Egunko menua eta afariak
Larunbata 29: Festetako menua eta afariak
Igandea 30: Festetako menua eta afariak
Astelehena 1: Egunko menua
Asteartea 2 eta asteazkena 3: Itxita



(Xuhakan elkarte).

18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra, Atsobakarretik aterata, eta herritik barrena Antigua Band txaranga lagun dutela (LOZET).

18:30 Trapu Zaharra antzerki taldearen eskutik *Por hacer un favor* lana, Elizatze plaza.

19:00 Voces Ribera taldeak Nafarroako jotak eskainiko ditu, Isla plaza.

19:00 Stereorock herriko taldearen emanaldia, Jaizkibel plaza.



20:30 DJ Anersote, Oriarte Landaberri patioiko gazte gunea.

22:45 Entzierrotxo zazen simulatuekin, Kale Nagusia (LOZET).

23:00 Zezensuzkoa, Kale Nagusia (LOZET).

23:00 DJ Tropikal (by Nemux), Oriarte Landaberri patioiko gazte gunea.

23:00 Stylo taldearekin dantzaldia, Isla plaza.

23:00 Belako taldearen kontzertua, Okendo plaza.

00:00 DJ Blessive, Oriarte Landaberri patioiko gazte gunea.

Uztailak 2, asteartea

11:30 Haur parkea, Isla plaza. Euskal gaia dituzten puzgarriak: Idiak, plaza dantza...

16:30 Haur parkearen jarraipena, Isla plaza.

17:00 Haurrentzako xake txapelketa, Palomo Linares elkarte. 16 urtetik beherakoentzat eta 60 parte-hartzaile gehienez. (Xake Kluba)

18:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra, Blas de Lezo kaletik, eta herritik barrena Joselontxos txaranga lagun dutela (LOZET).

19:30 Katapuntxispun haur antzerkia, Jaizkibel plazan.

20:00 Mariachi Imperial Elegancia Mexicana, udaletxe zaharretik irtenda.

22:45 Vulcano piroteknia etxe ospetsuaren su festa, Andatza plaza.

23:00 Markelin disko festa, Oriarte-Landaberri patioiko gazte gunea.

23:00 Oxabi taldearen erromeria, Okendo plaza.

23:30 Sanpedroetako azken zezensuzkoa, Kale Nagusia.



Ondo ospatu San Pedro Jaiak eta disfrutatatu!

ZUBIETA MOTOR

- Mekanika eta karrozeria konponketak
- Auto erdiberri, erabili eta 0KM salmenta



Oria Etorbidea, 4 6. lokala - LASARTE-ORIA - Tel: 943-36 00 09 - Faxes: 943 37 26 89 - zubietamotor@centrauto.es



ANORGA TXIBI S.L KRISTALDEGIA

Ondo pasa San Pedro Jaietan!!

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943-37 17 33 - 610 45 93 45



✓ Higienea bermatua

HITZORDUA HARTU!
943-84 19 72 | 672 71 72 06

Ondo pasa sanpedroetan!

Kale Nagusia, 2 Lasarte-Oria



"Musika genero ugari lantzen ari naiz; ikasten"

ANDER HAZAS BERASATEGUI MUSIKARIA

Gazte lasarteoriatarrak jaioterrian emango du zuzeneko lehenengo kontzertua, hilaren 30ean, 23:00etan, Oriarte Landaberri institutuko festa gunean. "Gogotsu" dago

Iñigo Gonzalez Sarobe

Ekaina hilabete mugitua izaten ari da Ander Hazas Berasategui gaztearentzat. *Hace tiempo* eta *Zenbat gau* abestiak (bigarrena, beste herritar batzuekin elkarlanean) estreinatu berri ditu eta sanpedroetan zuzeneko lehenengo emanaldia egingo du, non eta bere jaioterrian bertan.

Gero eta gutxiago falta da kontzerturako. Nola zaude?

Sentimendu nahasketa bat dudala esango nuke: pozik, urduri, gogotsu... Kontzertua ematea proposatu zidatenean, duela hiru aste inguru, urduri nengoen, apur bat ezustean harrapatu ninduelako. Emanaldia forma hartzen ari dela ikusten ari naiz eta motibatu egiten nau horrek, uste dut ongi aterako dela dena. **Lasarteoriatarra izanik, berezia da zuretzat lehen emanaldia herrian bertan egitea?**

Bai, noski! Hasieratik babestu nauten lagunak aurrean aritza, ezagutzen ez nauen jendea etorri eta publikoa zabaltzea... Berezia eta polita izango da. Gainera, ez naiz bakarrik egongo eszenatokian, *Zenbat gau* abestian Jagoba Mendizabal ariko da nirekin eta horrek lasaitu egiten nau.

Zer-nolako kontzertua izango da? Nire errepertorioko abestiak joko ditut eta Unai Arruti he-



Ander Hazas, Oriarte Landaberri institutua atzean duela. TXINTXARRI

rritarrarekin efektu bisual batzuk prestatzen ari naiz, kontzertuko musika irudiek laguntzeko.

Zein musika mota egiten duzu?

Genero ugariarekin *saltseatzen* ari naiz: rap, trap, reggaettoa, flamenkoa, pop-rocka... Hasi nintzenean aurreneko biak lantzen nituen eta pixkanaka hasi naiz beste batzuekin lanean. Ikasten ari naiz eta horretan jarraitu nahi dut, gauza gehiago probatzen eta artistekin kolaboratzen, nola lan egiten duten ikusteko.

Noiz hasi zinen abestiak egiten?

Duela zazpi urte. Aitor Rezusta lagunak abesti bat bidali zidan, brometan, eta beste batekin erantzun nion. Gustatu zitzaidan, bi astera beste bat egin nuen eta horrela segi nuen, pixkanaka, konturatu nintzen arte kantu dextente eginda nituela. Oinarri instrumentalak YouTubeetik hartzen nituen eta letrak idatzi gero. Produktore batekin jarri nintzen harremanetan, TheboyAtaide-rekin, batzuk ekoizteko. Horiek ez ditut jendaurrean erakutsi.

Prozesuaren hasiera polita izan zen. Gero eta motibatuago hasi nintzen lanean eta ikusi nuen ari nintzela hobetzen, ez momentuan, buru-belarri ari nintzelako sortzen, baina urte batzuen ostean atzera begiratzean bai, eboluzionatu eta pauso batzuk eman ditut.

Egindako abestiak ez zinen berehala igotzen hasi, gerora baizik. Nola sentitu zinen urrats hori egin zenuenean?

Lagunei bakarrik bidaltzen nizekin hasierako urteetan eta jasotzen nuen beraien erantzuna, baina jendartearen geroago hasi nintzen nire lana zabaltzen, duela bi urte: *Te quedas o te vas* kantua izan zen aurrenekoa. Izugarritzko lotsa sentitu nuen! Entzun dutenetako askok esan zidaten gustatu zitzaiela eta horrek motibatu ninduen aurrera jarraitzeko, abesti gehiago kaleratu ahala konfiantza irabazi dut.

Zeri buruz hitz egiten duzu abestietan?

Gehienbat, amodioari buruz. Izan daitezke nire bizipenak, lagunak edo besterik gabe aspertuta nagoen uneetan imajinazioa martxan jartzea. Maitasunari buruz idazten jarraitzen dut gaur egun, baina kantuek badute festa ukitu gehiago. Aurreko urtetik ari naiz uneotan nire produktorea den Julen Fezzy-rekin lanean; serioago ari naiz orain. Egia esan, Julenen lanagatik ez balitz, ez nintzateke ezer izango; asko laguntzen dit egiten duen guztiarekin: nahastu, masterizatu... Abestiko elementu guztiak dagokien tokian egon daitezen inportantea da hori.

Horri lotuta, oinarri instrumental propioak sortzen hasi nahi dut, mundu horretan sartu. Asier anaiak house generoko kantu batzuk egin zituen duela

urte batzuk eta kuriositatea izan dut ordutik.

Hilabete mugitua izaten ari da ekaina. Kontzertuaz aparte bi kantu estreinatu berri dituzu, 'Hace Tiempo' eta 'Zenbat gau'.

Hori da, ea nolako harrera duten. Pozik nago egindako lanarekin. *Hace tiempo* abestian reggaettoa eta flamenkoa batu ditut. *Zenbat gau*, berriz, pop-rockeroa da, herriko beste musikari batzuekin elkarlanean egindakoa: Jagoba Mendizabal, Beñat Bobillo eta Oihan Agirretxe. Azken hori Zumaiako Ozen estudioan ekoiztu dugu, Jurgi Taboadarekin. Julen Fezzy-k eta beste bi ekoizlekin parte hartu dute, Jorge eta Oier *dstro.lu-k*.

Horri lotuta, konturatu naiz euskarazko abestiak idaztea eta sortzea asko gustatu zaidala. Orain arte gaztelaniaz egin dut lan, baina badut gogoia bi hizkuntzak nahasten hasteko.

Epe laburreko proiektu eta hitzorduez hitz egin dugu. Horien ostean, zer? Nolako uda izango duzu?

Formakuntza duala egiten ari naiz, ikasten eta lanean aldi berean. Horregatik, ez dut denbora gehiegirik izan azken hilabeteetan abestiak sortzeko. Udan *tope* aritu nahi dut musika egiten eta artistekin kolaborazio berriak bilatzen. Horrez gain, Nafarroan badut lagun kuadrilla bat eta kontzerturen bat edo beste lotzen saiatzen ari gara: ea abuztu hasieran Lizarran egingo dituzten festetarako zerbait egiten dugun.

"UDAN 'TOPE' ARITU NAHI DUT MUSIKA EGITEN ETA KOLABORAZIO BERRIAK BILATZEN"

jalgi

kafetantxokia

Geltoki Kalea, 4 behea
LASARTE-ORIA






Zatoz gurekin festak igarotzera!

Egunean zehar jan pintxoak eta gauetan egin dantza gurean!

Gora San Pedro Jaiak!



"Publikoaren araberako eskaintza egiten dugu"

CRISTINA SIERRA HERNANDEZ IBAI BERRIAK-EKO ABESLARIA

Ibai Berriak taldeak aurten ere ez du hutsik egingo sanpedroetan; Isla plazan ariko da hilaren 28an. Orain artekoekin alderatuta, ordea, berrikuntza bat izango du emanaldiak: ordutegia

Maddi Zaldia

18 urterekin hasi zen musikaren munduan lehen urratsak egiten Cristina Sierra Hernandez (Lasarte-Oria, 1963). Lau hamar-kada pasatxo pilatu ditu dagoneko abeslari gisa, eta denbora horretan guztian, zenbait orkestra eta taldetako kidea izan da. Egun, Ibai Berriak taldearekin ari da hango eta hemengo oholtzetan kantari, horien guztien artean, Lasarte-Oria-koan ere bai. Urtez urte hutsik egiten ez duen San Pedro Jaie-tako jardueretako bat da aipatu taldearen emanaldia, eta, aurten ere, bertan izango da; Isla plazako eszenatokian, hilaren 28an.

Zenbat urte daramatzazu musikagintzan?

42 urte daramatzat abesten. Urtebetean 185 gala egin izan ditut urterik onenetan. Erraz esaten da, baina...hori bai, ez nuen abestu besterik egiten. Soldatapeko lana izan zen niretzat urtetan; lan polit bezain gogorra, hori bai.

Hainbeste urtez aritzeko prestaketa ezinbestekoa izango da, ezta?

Bai, ezinbestekoa da. Fisikoki prestatuta egotea garrantzitsua da, baina ahotsari dagokionez ere bai. Ni 18 urterekin hasi nintzen kontserbatorioan, eta



Ibai Berriak taldeko abeslaria da Cristina Sierra herritarra. TXINTXARRI

ordutik etengabeko prestakuntzan ari naiz.

Nola sortu zen Ibai Berriak?

Iruñeko orkestra batekin aritu nintzen urte luzez. Estatuan lan asko egin genuen talde horrekin, baina atzerrian ere ibili ginen, Suitzan esaterako. Ezkondu eta seme zaharrena izan nuelako talde hura uztea erabaki nuen. Amatasun bajaran nengoela, Donostiako talde ezagun batek deitu ninduen. Bertan hasi nintzen, baina denbora gutxi iraun zuen, proiektu hark ez baitzuen au-

rreikusi bezala funtzionatu. Talde horretako kideek eman zidaten Ibai Berriak-en berri. Emakumezko taldekide baten bila ari zirela esan, eta harremanetan jarri ginen. Horrela hasi nintzen Ibai Berriak-en. Hiru bat urte iraun zuen talde hark. Desegin egin zen gero, eta piano jotzailea eta biok geratu ginen. Bikote gisa aritu ginen denbora batez, eta, ondoren Raulekin [egungo abeslari eta gitarra zein perkusio jotzailea] hirukotea osatu genuen.

"GUSTATZEN ZAIT HERRIAN ARITZEA, BAINA AITORTU BEHAR DUT OSO URDURI JARTZEN NAIZELA"

Urtez urte sanpedroetako egitarauan hutsik egiten ez duen hitzordua da Ibai Berriak-en kontzertua.

Bai, hala da. Egungo Ibai Berriak taldearekin, oker ez banago, 10 urte dira parte hartzen dugula. **Herritarrek urtero espero zaituzte Isla plazan.**

Bai. Hamalau urtez aritu gara Donostia Kulturaren +55 programan. 55 urtetik gorako pertsonentzako ekimen bat da, eta horientzako eskaintzaren barruan, hainbat talde parte hartzen zuten, tartean guk. Dantzaldi horietara joaten zen Lasarte-Oriako jende ugari; hor ezagutu gintuen herritar askok. **Zuen emanaldiak, beraz, adin horretako publikoari zuzenduta daude?**

Eskaintza ezberdinak egiten ditugu, kontzertura joango den publikoaren arabera. Lasarte-Orian egiten ditugun emanaldiak, adibidez, publiko nagusiari zuzenduta daudenez, bachatak, pasodobleak, lerro dantzak, eta abar jotzen ditugu. Horiek dira beraiek espero dituztenak.

Lasarteoriatar gisa, herrian aritzea berezia izango da, ezta?

Bai, gustatzen zait, bai. Oso urduri jartzen naiz, hori ere esan behar dut. Beti jartzen naiz, baina kirioak ez dira berdinak Asturiasen, adibidez, edo Lasarte-Orian. Ezagutzen ez nauten herrietan nolabait lasaiago egoten naiz, ezberdina da sentsazioa. **Zer topatuko du hilaren 28an emanaldira bertaratzen denak?**

Gure ohiko emanaldietatik gutxi alduko den zerbait; rantxera, pasodoblea, merengea edo salsa dantzatzea gustuko duena bertara dadila. Horrez gain, 80. hamarkadako abestiren bat edo beste ere joko dugu. Dantzarako musika izango da. Ez dira faltako, adibidez, El Consorcio taldearen *El chacachá del tren*, edota Coyote Dax-en kantak. Negua igarotzen dugu udako emanaldietan eskainiko ditugun kantu entzunekin pieza berriak lantzen, eta, gero, publikoak, betikoak eskatzen dizkigu.

Nagusientzako emanaldietan dantzalekuko izarra pasodoblea da; hori ukazezina da, baina edozein musika dantzatzen dute, betiere beraientzako egokituta. Rocka, adibidez, asko gustatzen zaie, Elvis, esaterako. Etengabe eskatzen digute, baita Juanes-en *La camisa negra* ere.

Aurtego kontzertuak, gainera, berrikuntza bat dakar: ordutegi aldaketa.

Bai orain arte gauez eman izan ditugu kontzertuak sanpedroetan, baina, aurten lehen aldiz iluntzean izango da.


Euskal Herritik kanpoko jai eta ospakizunetan gaueko emanaldiez gain, kontzertuak bermutaren edo kafearen orduan egiteko ohitura dago, baita arratsalde-iluntzeetan ere. Gure inguruan gauak izan du protagonismo gehien, baina, badirudi badatorrela ordutegi berrien tendentzia hori. Niretzat ez da berrikuntza bat, hemendik kanpo askotan egin baititugu ordutegi horretan. Iku-si beharko da zein erantzun duen, jendea ez baitago horretara ohitua.

Elkarriketa, osorik,
www.txintxarri.eus-en

Gora San Pedro Jaiak!
Ondo pasa!

PATXI LARRAÑAGA
ANA IPARRAGUIRRE
NAROA

HARATEGIA · TXARKUTEGIA
Kale Nagusia, 39 LASARTE-ORIA Tel. 943-37 26 68



BASOKO MAXUSTA

Sorgin Jaiak prest daude aurtengo akelarrerako. Pijama egunetik uztailaren 1era, Lasarte-Oriako sorgin eta aztiak sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik ibiliko dira herria musika, hitz, elkartasun, kolore eta irriez betetzen.



DISEINU GRAFIKOA



INPRENTA
Offset eta Digitala



DISEINU EDITORIALA

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 1-2 pabilioiak · LASARTE - ORIA

943 370 738

info@antza.eus

www.antza.eus

gora San Pedro jaiak

CEPA LASARTE HHI

2024-2025 ikasturtea

MATRIKULA ZABALIK ekainaren 17tik 27ra eta irailaren 2tik 13ra

- **Hezkuntza orokorra** (Irakurketa, idazketa, oinarrizko ingelesa, nutrizio osasuntsua, Historia...)
- **DBHko titulua**
- **Oinarrizko euskara**
- **Gaztelania atzeritarrentzat**
- **Irteera didaktikoak**



Deitu hitzordua eskatzeko!
943-37 64 43



Ekainak 27, osteguna

PIJAMAK KALERA

18:00 Kuadrillen jaitsiera, Isla plazatik abiatuta, pijama jantzita. Eta Elektropottotte elektrotxarangak lagunduta.

20:00 Txupina, Okendo plaza.
OMENDUAK: Xumela korua.

22:00 Akaleia, Herenegun eta DJ Fantasia, Okendo plaza.

Ekainak 28, ostirala

SORGIN EGUNA

14:30 Sorgin bazkaria, Okendo plaza.

16:30 Sorgin jolasak, Okendo plaza.

18:00 Kita del Pare txaranga.

20:00 E28ko Transmaribolloen aldeko defentsan *Hemen gaude* manifestazioa, Okendotik abiatuta.



21:30 Chuleria joder! eta UDA taldeen kontzertua, Kale Nagusia.

01:30 DJ LatxirOngaK, Okendo plaza.

Ekainak 29, larunbata

ELKARTASUN EGUNA

11:00 - 19:00 Sorgin azoka, Askatasuna parkea.

12:00 Bizipozaren akelarrea, Oriarte ondoan.

18:00 Danele Sarrugarte eta Miren Narbaizaren *Popperra, afterra, utopia* emanaldia, Gaztelekua.

19:30, *Gazteok ere bidelagun...* manifestazioa, Okendo plazatik.

21:30 Elkartasun afaria, Okendo plaza.

Ekainak 30, igandea

16:00 III. Sorgin Tortilla Txapelketa, Okendo plaza.

18:00 Bertsoptoea, Okendo plaza eta Kale Nagusi ingurutik.

Bertsolariak: Aritz Ramos, Xuban Urdalleta, Oihan Navarro, Maddi Lasa ta Nikola Iraola (Earra bertso eskolako ikasleak).

Gai jartzailea: Libe Elvira.

19:30 Palestinaren aldeko elkartasun argazkia, txoznagunea.

00:30 Lizartxoren erromeria, Okendo plaza.

Uztailak 1, astelehena

17:00 I. Toka txapelketa, Okendo plaza.

18:00 *Zor diegun memoria* antzerkia, Kukukaren eskutik, Okendo plaza.

01:00 Auskaloren kontzertua, Okendo plaza.



ILLARRETA

ITURGINTZA ETA IGELTSERITZA

BULEGOA

Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria
Tel. 943-36 17 52 eta 606 38 66 15

info@illarreta.com

TAILERRA

Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943-33 17 54

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak



- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Abestu, herrigintza egin, saretu, planak gauzatu eta herriari kolorea ematen diote Xumelako kideek. 60 inguru dira. TXINTXARRI



Komentuko mojekin batera abestu zuten 'Amerikatara joan nintzan'. TXINTXARRI

Elkar zaindu eta maitatu, euskaraz kantatzen

Xumela koruko lagunek txupinazoa jaurtiko dute hilaren 27an, sorginekin batera. Okendo plazan izango da ekitaldia, 20:00etan. Bukatu berri duten ikasturtea biribilduko dute eurentzat "poza eta ohorea" den aitortza hori jasota

Iñigo Gonzalez Sarobe

Duela hamazazpi urte jaio zen Xumela korua, euskarari arnasa eta toki bat gehiago ematea helburu. Denbora horretan guztian jo eta ke aritu dira sinesten dutena aurrera eramaten: abestu, herrigintza bultzatu, saretu, aisialdiko planak egin eta Lasarte-Oriari kolorea eman. Bukatu berri dute 2023-2024 ikasturtea,

talde horretako kide Joxe Mari Agirretxeren hitzetan, "oso ongi" joan dena. Hilaren 27an jarriko diote ginga, Sorgin Jaien hasiera irudikatuko duen txupinazora zerura jaurtita. "Poza eta ohorea sentitzen dugu aitortza honekin: gazte izandakoak gara gu ere eta horregatik eskertzen dugu horrenbeste omenalditxo hori; badakigu zailtasunak bizi dituzte-

la, beraiekin bat egin eta babes-tu egiten ditugu", nabarmendu du Agirretxek. "Etorkezunik gabe ez dago herririk eta pozik joango gara txupinazora. Kantatu egingo dugu, jakina, eta baita topa egin ere: Xumelagatik, Sorgin Jaiengatik, euskararengatik eta gure herriarengatik".

Koru horretako lagunek egiten dutena ez da makala. "Ekimen

ugaritan parte hartzen dugu; deitzen gaituztenean ez dugu bozkaten joango garen ala ez, baizik eta zenbat animatuko garen galdetu. Behar gaituzten toki denetan egongo gara".

Ikasturte honetan, besteak beste, abestu dute Boise (Idaho, AEBak) hiritik etorritako Biotetik koruarekin batera, parte hartu dute Alkiza herriko Naturaren Doinuak jaialdian edota TXINTXARRI aldizkariaren 30. urteurrena ospatu dute. Horrez gain, azken entsegua ez zuten Oriarte Landaberrin egin, ohi bezala, baizik eta Ama Brigitarren komentuan, bertako mojekin batera. *Zin bum bum, Amerikatara joan nintzan, Behin betiko eta Txoria txori* kantatu zituzten, beste batzuen artean.

Kantu eta dantza jira, 29an

Abesti horiek eta beste asko kantatuko dituzte sanpedroetan egingo duten kantu eta dantza jiran; 11:00etan hasiko da, Sargardotegi kalean. Josu Txapartegi *Txapas* zuzendari zarautzarraren gidaritzapean, euskal kanta tradizional ugariarekin eta pieza propio batzuekin osatu dute errepertorio zabala. "Esker-rak eman behar dizkiogu Txa-

pasi, astelehenero etortzen baita Zarautzik gurekin entseatzera, hutsik egin gabe", azpimarratu du Agirretxek. Festetako jarduera hori amaitzean, Oriarte Landaberrin institutura joango dira, Sorgin Jaiak-ek aurrera eramango duen Bizipozaren Akelarrean parte hartzera. 12:00etan hasiko da.

Gaur-gaurkoz 60 bat lagun ari dira Xumelan, Agirretxek azaldu duenez. "Gure izenaren zati bat 'Xume' da, umilak garelako; 'la' da bestea, Lasarte-Oriakoak garelako. Ikasten eta hazten ari gara eta ederki pasatzen dugu, elkar zaindu eta maitatzen, euskaraz eta kantari. Zer gehiago eska diezaiokegu bizitzari?".

Gazteek txantxetan "Ximela" deitzen badiete ere, kide gehienak adinekoak direlako, argi utzi dute euren grina ez dela zimeldu eta udan zehar pilak kargatu ostean indarberrituta itzuliko direla, iraillean. Astelehenero elkartzen jarraituko dute, eta, dagoeneko kuadrilla ederra osatu badute ere, beso-zabalik hartuko dituzte taldera batu nahi duten lasarteoriatarak. "Ahobizi ala Belarriprest izan, euskara maite duen orok tokia du Xumelan".

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA

Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

ARREGUI

Ondo pasa San Pedro jaiak!

KOMERTZIO TXIKI HERRI HANDI

LASARTE-ORIA



BARNE-DISEINUA


SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
 - HORMA-ARMAIRUAK
 - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com



ELEKTRIZITATEA



- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com

GRE MI OAK



IGELTSERITZA

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

 **ANORGA TXIKI S.L.**
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
 - Beira bikoitza
 - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - Ispiluak
 - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

32. URTEURRENA
 **ISU**

PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK
Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

 **943-36 64 95**
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behea.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL 

ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?

PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66



Sorgin Dantza da sanpedroetako ekimen errotu eta kuttunenetako bat. TXINTXARRI

Euskara eta euskal kultura bultzatzeko

Ttakun Kultur Elkartek makarroi jana, Bustiblai ur jolasak, Gure Patxintxiak sariak, Xumela koruaren kantu eta dantza jira, Sorgin Dantza eta sagardo dastaketa aurrera eramango ditu aurtengo San Pedro Jaietan. Boluntarioak behar ditu

Txintxarri

Sanpedroetako egitarauan tokia dute euskarak eta euskal kulturak, Ttakun Kultur Elkartek festetan aurrera eramaten dituen ekimenei esker: Gure Patxintxiak sariak, makarroi jana, Bustiblai ur jolasak, Sorgin Dantza, Xumela koruaren kantu eta dantza jira nahiz sagardo dastaketa izango dira aurtengoak. Horiek guztiak egin ahal

izateko boluntario gisa jardungo duten herritarren laguntza behar duela azpimarratu du euskara elkarteak. Parte hartu nahi dutenek Geltoki kaleko 4. zenbakiko bulegora etor daitezke, kultura@ttakun.eus helbide elektronikora idatzi edota 695 78 53 89 telefono zenbakira deitu dezakete.

San Pedro bezperan egingo dituzte ekimen horietako gehie-

nak, Gure Patxintxiak sariak ematetik hasita. Gauzak horrela, 65 urtetik gorako emakume eta gizon banak aitortza goxoa jasoko dute udalbatzar aretoan, eguerdiko hamabietako haurren txupinazoa jaurti ondoren, Bea Egizabal umoristak aurkeztuko duen ekitaldian. Euskara elkarteak jakinarazi du hamabi hautagairen artean aukera dezake-

tela herritarrek oraindik, botoak emateko epea astelehenera arte (hilak 24) irekita dagoelako. Hauek dira proposatu dituzten lasarteoriarrak: Pilar Gonzalez, Josu Sarasola, Rosa Elizondo, Pello Ormazabal, Manoli Zumeta, Joxe Goikoetxea, Toñi Centeno, Mikel Amenabar, Maria Angeles Uria, Patxi Illarramendi, Begoña Perurena eta Angel Barrera. Esteka honetan bozka dezakezue: <https://txintxarri.eus/lehiaketa/1717067058613>.

Adin tarte guztietako herritarrengan pentsatu du Ttakunek. Haurrentzako plana (2012 eta 2015 urte artean jaiotakoak), esate baterako, makarroi jana eta Bustiblai ur jolasak izango dira, Atsobakar auzoan. Haurren txupinazoa eta gero Okendo plazan elkartuko dira parte hartzaileak, 12:30ean, eta kalejiran joango dira haraino, txarangaren laguntzaz. Tomatedun pastarekin sabelak bete ostean, etxez etxe ibiliko dira gaztetxoak, ura botatzeko eskatzen bizilagunei. Ekimenean parte hartu nahi duen baten batek txartela erosi ez badu oraindik, aukera du Geltoki kaleko bulegora joateko, 09:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 18:00etara (astelehen goizetan eta ostiral arratsaldetan itxita dago); tiketek 3 euro balio dute. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiote Semblante Andaluz elkarteari, beraiek arduratuko direlako bazkaria prestatzeaz.

Bazkalostean abiatuko dira Sorgin Dantza egingo duten herritarrek: zortzikote txikia eta heldua aurrena, txistulariekin batera, eta lasarteoriatar andana bat atzetik, blusa gris laukidunak soinean. Oria auzoan hasiko dira dantzatzen, 16:30ean. Kale Nagusi osoa zeharkatu eta gero iritsiko dira Okendo pla-

zara, helduen txupinazoa Makelur antzerki taldeak 19:00etan zerura jaurti baino minutu batzuk lehenago. Antolatzaileek jakinarazi dute estimatuko dutela dantzari gaztetxoaren gurasoen laguntza, ibilbidean zehar partaideei edariak banatzeko.

Kantu eta dantza jira eta sagardo dastaketa

Orain arte aipatutako ekimenak hilaren 28an egingo dituzte. Biharamunean ere, San Pedro egunean, aurrera eramango dituzte zenbait jardura Ttakunek. Goizeko hamaiketan Sagardotegi kaletik abiatuko dira Xumela koruko kideak, Jalgi Kafe Antzokian hamaiketako egin eta gero, kantu eta dantza jiran. Erdigunean barrena ibili ostean Oriarte Landaberri instituturara joango dira, Sorgin Jaiak-ek antolatutako Bizipozaren Akelarrean parte hartzera.

Arratsaldean berriz, Okendo plazan, 18:00etan, sagardo dastaketa egingo du euskara elkarteak, herriko zenbait baserritako edaria eskainita: Telleri, Saltsate, Sollaena eta Buenabista. Nahi dutenek edatekoa ezkontzeko aukera izango dute metro gutxi batzuetara Aterpea merkatarien elkarteak egingo duen sardina janarekin. Ordu berean hasiko da.

Herri afaririk ez aurten

Ttakun Kultur Elkartek, arrakasta handiz, zikiro afaria antolatu izan du sanpedroetan

AURTEN HERRI AFARIRIK EZ DU EGINGO TTAKUNEK, TALDEA EZIN IZAN DUELAKO OSATU

aldika productos selectos



ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa



Ondo pasa San Pedro Jaietan! Gozatu!

Industrialdea, 19-20 LASARTE-ORIA • Tel: 943-37 70 89
aldika@aldika.com • www.aldika.com





Makarroi janean parte hartuko duten haurrak kalejira joango dira Atsobakarrera, txarangarekin batera. TXINTXARRI

urte askotan, baina, badira bi urte haragi hori erretzen zuen taldeak jarduna utzi zuela erre-tiroa hartu nahi zuelako. Halaber, afariaren antolaketan eta zerbitzatzeko lanetan aritzeko taldea osatzea oso zaila egin zaie azken urteetan. Gauzak horrela, aurten ez dute herri afaririk antolatuko. Euren indarrak jaietan antolatuko dituzten beste ekimenetan jarriko dituzte, ez dira gutxi izango-eta. Edonola ere, etorkizunean gisa horretako otordu edo festetan euskal giroa bultzatzeko beste edozein ekimen egiteko gogoz badago norbait, euskara elkarteak kideak bidelagun izango ditu zeregin horretan.

Horiek guztiak esanda, antolatutako jarduerak guztietan parte hartzera eta laguntzera animatu dituzte herritarrak eta baita San Pedro Jaietz gozatzera ere.



Ore Amako langile Vanessa Caballero, Joxe Pikabearen saria ematen. TXINTXARRI

Ore Amako bonua, Pikabearentzat

Joxe Pikabeak irabazi du Ttakun Kultur Elkartearen bazkideen arteko maiatzeko zozketa: Ore Ama obradorean erabiltzeko 30 euroko erosketako bonu bat. Euskara elkarteak iragarri du ekainean Patxi Larrañaga harategian gastatzeko txartel bat zozkatuko duela, 30 eurokoa baita ere.



Arkaitz Illarramendi eta Jon Antxordoki, egitasmoa aurkezten. TXINTXARRI

Bertso jasa, bat-bateko jolasa

Ate joka ditugun sanpedroen aurrekari gisa, *Udaberriko bertso jasa, bat-bateko jolasa* ekimena antolatu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak hilaren 25erako, Imanol Lizardiren Omenez taldearekin elkarlanean. Elkarte eta erakunde horietako ordezkari Arkaitz Illarramendi eta Jon Antxordokik jakinarazi dutenez, 2015 eta 2017 urteen artean jaiotako haurrei zuzendutako jarduerak da eta 30 toki daudenez, parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute bide hauetakoren bat erabilita: Geltoki kaleko 4. zenbakiko bulegora joan (09:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 18:00etara; itxita dago astelehen goizetan eta ostiral arratsaldeetan), posta elektronikoa (kultura@ttakun.eus edo aisia@ttakun.eus) edota WhatsApp (695 78 53 89 / 695 78 53 92). Ttakunenean egingo dute saioa, 10:45etik 12:00etara.

Ordubete iraungo du bertso jasa horrek eta Hezkuntza arloan jarduten duten bi bertsolari ariko dira koplaka, Lierni Rekondo herritarra eta Iker Ormazabal *Tturko*. Unai Mendizabalena da gidoia eta bera da zuzendaria.

Bertsolaritzako ohiko zirkuituan eskaintzen dituzten saioak helduentzako izan ohi dira. Bertsolariek adin tarte horretako ikus-entzuleei kantatzen diete, eta, horregatik, erabiltzen dituzten hitz, esamolde, gai eta bestelako komunikatzeko moduak haiei bideratuta daude. Eskema hori hautsi eta haurrak diziplina horretara erakartzeko aldera, formatu desberdin baten alde egin dute Ttakuneko eta udalak. Illarramendik eta Antxordokik nabarmendu dute "beharrezkoa" izango dela haurrek parte hartzea: "Ikus-entzule ez ezik, partaide aktiboak izango dira". Gai jartzailerik izango ez denez, publikoko boluntarioen ideiekin inspiratuko dira Rekondo eta Ormazabal, hitzekin nahiz errimekin jolasteko. "Gaztetxoaren interesa piztu eta etorkizunean Earra! bertso eskolan izena emateko lagungarria izan daitekeelakoan gaude".



**FOTOKOPIAK
TXURI BELTZEAN ETA
KOLORE DIGITALA**

- Koadernaketak
- Plastifikatuak
- Bulegoko materiala
- Material informatikoa

**Ploterra, eskanerra
eta planoen kopia**

Ondo pasa festak!

Kale Nagusia, 34 behe 1 • Lasarte-Oria
Tel.: 943-36 69 30 • Faxa: 943-36 69 31 | copilasarte@gmail.com




MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratzeko dugu

ZERBITZU MISTOAK

**Presta
zaitez
festetarako!**

Zatoz eta
zaindu zure
azala

Gora San Pedro Jaiak!

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45



Makelurreko hainbat antzezle eta zuzendaria, Agustin Valdivia alkatea eta Jaietako zinegotzi Txus Alonsorekin, prentsaurrekoa egin eta gero. TXINTXARRI

"Familia handi" bati aitortza

Makelur antzerki taldeko Maria Aguirre zuzendaria eta hamalau antzezleak pozarren daude aurtengo festetan omenduak izango direlako: "Emozioa, ilusioa, ohorea... Aitortza oso garrantzitsua da, Lasarte-Orian aztarna uzteko modu ederra"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Makelur antzerki taldeko hamabost emakumeek espero gabeko bi emanaldi apuntatu berri dituzte euren agendetan: hilaren 28an, 19:00etan, udaletxe berriko balkoian, pregoia eta txupinazoa; hurrengo egunean, 13:00etan, kultur etxean, omenaldi instituzionala. San Pedro Jaietan omendua izateak jendaurrera azaltzea dakar eta horretan badute eskarmentua Maria Aguirre zuzendariak eta eszenarioetara igotzen diren hamalau antzezleek. Kontatu dute irrikaz daudela aintzatespena jaso eta festak herritarrekin ospatzeko. "Presta ezazue balkoia, jende asko izango gara-eta!", bota diete udal ordezkariari.

Agustin Valdivia alkateak eta Jaietako zinegotzi Txus Alonsok agerraldia egin dute Makelurreko lagunekin, herriari jakinarazteko eragile hori izango dela

aurtengo omendua. Berria iragarri aurretik zenbait kiderekin bildu ziren eta horiek onartu dutenez, hasieran uste zuten "broma bat" zela. Taldekideak esandakoari berehala erantzun dio Ludik, hastapenetatik bertan ari denetako batek: "Nola izango da, ba, txantxa, ongi merezita dugu!". Lehen ordu eta eguneko ezustekoa gaindituta, beste sentimendu batzuk gailendu dira emakumeengan: harrotasuna, ohorea, ilusioa, emozioa, eta abar. "Herritarrek guri aitortza hori egitea, gu horrela besarkatzea... oso garrantzitsua da eta urte askotako prozesuaren parte. Lasarte-Orian aztarna uzteko modu ederra da", nabarmendu dute denek.

"Eboluzioa" izan da aipatu duten beste hitzetako bat: "Hauts izpi bat izaten hasi zena burbui-la handi bihurtu da". Sexuen

Elkarbizitzarako Emakumearen Zentroaren altzoan jaio zen taldea, 2006an. "Eskaintzen zutenaren artean antzerkia zegoela ikusi genuen eta izena ematea erabaki genuen", kontatu dute partaide beteranoenek. Urte horretako ekainaren lehen estreinatuta zuten lehenengo lana, *La boda*, Arantzazuko Ama parrokiako aretoan. Beste hamasei emanaldi egin dituzte ordutik, azkenekoa, urte honetako martxoan, Emakumearen Nazioarteko Egunaren egitarauaren barruan: *Escuela de princesas*. "Elkar topatzeko talde bat da hau, emakumeak elkartu eta egunero gertatzen zaigunari buruz hitz egiteko: alaba kanpora doala ikastera, minak, menopausia... Adieraztea da gure helburua, jaso dezatela herritarrek guk barruan duguna; forma ematen diogu errealitateari eta esan nahi dugunari", azpimarra-

tu du Makelurren zuzendari Maria Aguirrek.

"Indarberritzeko" tokia

Omenduaren berri emateko prentsaurrekoa zena lagunaren arteko elkarrizketa bilakatu da eta apurka-apurka asko izan dira sentitzen dutena azaltzera animatu direnak. Mari Karmen: "Astean behin entseatzeko dugu eta joan gaitezke osonekatuta, gaizki, porru eginda... eta amaitzean indarberrituta ateratzen gara, elkar babesten dugulako". Hori esanda, kide dituen guztiei eskerrak eman dizkie eta baita zuzendariari ere: "Edozer behar badugu hor dago bera, ez soilik saioetan, baita egunero ere, edozeri buruz hitz egiteko".

Antzezlea eta terapeuta da Maria Aguirre tolosarra eta hamar-kada bat pasatxo darama Makelur zuzentzen eta antzezleengandik loreak jaso ahala itzuli dizkie. "Zoragarria" iruditzen zaio horrelako emakume talde batekin lan egitea, lanketa kolektiboaren kaltetan individualismoa gailentzen ari den garai honetan: "Gaur egun ez gara elkartzeko eta ez dugu ezer jorratzen horrela, badirudi beldurra ematen digula kezka eta bestelakoak partekatzeak. Bizitzea hori da, zailtasunei aurre egin eta aurrera egitea; horretan ari gara gu".

Esan bezala, hamalau antzezle eta zuzendari batek osatzen dute Makelur. "Garrantzitsua" iruditzen zaie nabarmentzea belaunaldi askoren ordezkariak osatzen dutela taldea, 40-45 urteko kide-

tatik hasi eta 80 urte baino gehiago dituzten parte hartzaileetara. Beteranoa ala sartu berria izan, guztiak dira familiako kide. Purik eman du horren adibide bat: "Omenduak gu izango gine-la jakin genuen egunean ezin izan nuen etorri, lanegatik. Pentsatu nuen aitortza hori ongi merezita zutela gainerakoek, ni aparte utzita sartu berria nintzelako, eta berehala sentiarazi ninduten urteotan egin duten guztiaren parte".

Entseguak, jantziak...

Gidoi mardulak irentsi bainoago, inprobisazioa erabiltzen dute Makelurrekoek antzezterakoan. Hori da zuzendariaren lan egiteko modua: "Barruan daramaguna entzun eta atera behar dugu". Horrek, edonola ere, ez du esan nahi entseatzekoan testurik erabiltzen ez dutenik. Are gehiago, kideek beraiek idazten dute eta horrek baditu abantailak, izan ere, "errazagoa" zaie emanaldietan esan behar dutena memorizatzea. Horrez gain, eszenografia lanak eta jantziak ere beraiek egiten dituzte: "Guk sortzen duguna dena eta elkarrekin egiten dugu; horrek du grazia".

Amaitu aurretik, Makelur izenaren jatorria azaldu dute. Hitz joko edo esanahi ezkuturik ez, praktikotasuna baizik: "Garai horretan taldeko kide ginenon izenen lehenengo hizkiak idatzi genituen arbelean eta 'Makelur' izan zen gehien gus-tatu zitzaiguna".



Hamazazpi antzezlan, 2006tik

Sexuen Elkarbizitzarako Emakumearen Zentroaren altxoan sortutako Makelur antzerki taldeak hamazazpi antzezlan egin ditu 2006ko ekainetik aurtengo martxora arte. Urtean behin edo bitan igotzen dira kultur etxeko eszenatoki gainera, Emakumearen Nazioarteko Egunean nahiz Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunean. Horrez gain, ekimen bereziren batean ere parte hartu izan dute, esate baterako, Alkoholiko Anonimoak erakundearen 73. urteurrenean, 2008an.

Makelurren antzezlanak

- **2006ko ekainaren 1ean, Arantzazuko Ama parrokiako aretoan:** *La boda*.
- **2007ko martxoaren 24an, kultur etxeko auditorioan:** *Centro Cínico Café*.
- **2008ko ekainaren 9an, kultur etxeko auditorioan:** *A mí sin alcohol, gracias*. Alkoholiko Anonimoak erakundearen 73. urteurrenean parte hartu zuen antzerki taldeak. Euren aurretik *El secreto bien guardado* obra oholtzaratu zuen Lan eta Lanek.
- **2008ko azaroaren 21ean, kultur etxeko auditorioan:** *Retales de mujer*.
- **2009ko azaroaren 11n, kultur etxeko auditorioan:** *Odisea donde sea*.
- **2010eko azaroaren 26an, kultur etxeko auditorioan:** *Reencuentros con nuestras cosas*.
- **2011ko azaroaren 25ean, kultur etxeko auditorioan:** *Patio de vecinas*.
- **2012ko azaroaren 23an, kultur etxeko auditorioan:** *Siete viudas*.
- **2013. urtean, kultur etxeko auditorioan:** *Cabaret de madame*.
- **2014ko azaroaren 28an, kultur etxeko auditorioan:** *Cuentos a la oreja*.
- **2015eko azaroaren 27an, kultur etxeko auditorioan:** *9 mosaicos infinitos*.
- **2016ko abenduaren 2an, kultur etxeko auditorioan:** *La eterna juventud*.
- **2017ko azaroaren 24an, kultur etxeko auditorioan:** *Lo que tu quieras Bernarda, y las demás... ¿qué?*.
- **2018ko azaroaren 23an, kultur etxeko auditorioan:** *La primavera de Antonia*.
- **2020ko martxoaren 6an, kultur etxeko auditorioan:** *Pase lo que pase... llegamos*.
- **2023ko martxoaren 10ean, kultur etxeko auditorioan:** *Sálvese quien pueda, canal 38*.
- **2024ko martxoaren 8an, kultur etxeko auditorioan:** *Escuela de princesas*.

Makelurren argazki hemeroteka



'LA BODA'
2006-06-01

Arantzazuko Ama parrokiako aretoan egin zuen Makelur antzerki taldeak bere lehen emanaldia, *La boda*. "Performance dibertigarri" gisa definitu zuten: edozein ezkontzatan gerta litezkeen pasadizoak irudikatu zituzten. Hamahiru antzezlek parte hartu zuten eta gehienentzat "lehen aldia" izan zen.



'CENTRO CINICO CAFE'
2007-03-24

2007ko Emakumearen Nazioarteko Egunean bueltan *Centro cinico café* emanaldia egin zuten, bulego bateko giroa, elkarrizketak eta harremanak parodiatzeko. Garai horretako zuzendari Imatxi Ricok gidatu zuen emanaldia eta umorez bete zuten kultur etxea, urtarrian entseatzeko hasitako obraren bidez.



'ODISEA DONDE SEA'
2009-11-27

Esketx desberdinak oholtzaratu zituzten antzezleek kultur etxean: Inkisizioaren garaian emakumeek pairatu zutena salatzen akelarrea; emazte batek senarrarekin izandako amets bat; edota adinean aurrera egin ahala emakumeen izaten dituzten gorabeherak, Maurice Ravel konpositorearen *Bolero* piezak lagunduta.



'9 MOSAICOS INFINITOS'
2015-11-27

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Egunean harira, Makelur antzerki taldeak *9 mosaicos infinitos* antzezlanaren emanaldia egin zuen kultur etxeko auditorioan. Ohi bezala, antzezleek egunerokotasuneko zenbait bizipen eta gertaerarekin osatu zuten aipatu obra hori eta herritarrek gustura ikusi zuten.



'PASE LO QUE PASE, LLEGAMOS'
2020-03-06

Koronabirusaren pandemiak eragindako itxialdia baino egun batzuk lehenago oholtzaratu zuen antzezlan Makelurrek. Orduko horretan Solvenybus agentziak prestatutako bidaia batean izena emandako zenbait emakumek bat egin zuten. Benidorm helmuga zuen bidaia funtsezko bilakatu zen, bizitzan aurrera jarraitzeko arrazoiak topatu zituztelako.



'ESCUELA DE PRINCESAS'
2024-03-08

Printzesen ikastetxe berezian ipuinetako dozena bat emakumezko pertsonaia elkartuko dira printzesa baten zereginak egoki egiten ikasteko. Pipi Kaltzaluze, Ariel sirenatxoa, Txanogorritxu... Hamar bat elkartuko dira eta gaitasunak ikasi edo irakatsi beharko dituzte. Denek, ordea, ez dute ikasteko prestutasun bera izango.



ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

Sanpedroetan ondo jan!
Guk sukaldatuko dugu zuretzat,
eramateko janari eskaintza zabala!



Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943-36 13 79 / 610 44 15 44 • LASARTE-ORIA



Jaien aurreko egunak girotzeko Jarduera ugari udalerrian

Hilabete osoa festetan daramagula dirudi, izan ere, herriko eragile eta elkarteak ekimen mordo bat egiten ari dira San Pedro Jaien aurretik. Ikasturtean zehar landutakoa erakusten ari dira batzuk, urtean behin elkartu eta disfrutatzeko hitzorduari heldu diote beste batzuek... Jarduera era batekoa ala bestekoa izan, guztiak ari dira gogotik gozatzeko eta festetarako motorrak berotzen.

Biyak Bat elkarteak kideek, esaterako, arratsalde atsegina igaro zuten hilaren 14an, karta jokoetan. Egun berean kurtso bukaerako kontzertua eman zuen Alboka Abesbatzak Ama Brigitarren komentuan eta lepo bete zuten herritarrek, urtero bezala. Gune horretan ahots finak eta musika ederra entzun bazituzten, kanpoan bestelakoa zen soinua: Vespa eta Lambretta marketako motorren 80-100 bat gidari iritsi ziren udalerrira, Scooter Club Euskadi elkarteak antolatutako rallyan parte hartzeko. Ibilaldiak, erakusketak, jana eta edana, jokoak, kontzertuak... Ederki pasatu zuten partaide guztiak.

Gozatua hartu zuten ere Erketz EDTren ikasturte amaierako emanaldia ikustera joan zirenek. Euskal Herriko lurralde ugariak dantzak erakutsi zituzten dantzari finek. Azkenik, Udal Musika Eskolako ikasleek pare bat kontzertu eman zituzten, senide eta lagunen aurrean.



Besteak beste, eskoban jokatu zuten Biyak Bat elkarteak kideek. TXINTXARRI



Brigitarren komentua lepo bete zuen Alboka Abesbatzak. TXINTXARRI



Motorrak ikusgai jarri zituzten Okendo plazan. TXINTXARRI



Hilaren 15ean 80 bat kilometroko ibilaldia egin zuten. TXINTXARRI



Amaia Dorronsoro eta Montse Latorrek loreak jaso zituzten emanaldi amaieran. TXINTXARRI

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

● IBILGAILUAK

- Motozikletak
- Automobilak
- Autokarabanak
- Furgonetak
- Kamioiak

● MERKATARITZA

- BIZITZA ETA ERRETIROAK
- OSASUNA
- ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK

● ERANTZUKIZUN ZIBILA

- ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
- INBERTSIOAK
- PYMEAK...

Ganbo kalea, 1 LASARTE-ORIA - Tel.943-36 22 75 & FAXA: 943-37 24 13



Gora Lasarte-Oria!





Euskal Herriko dantza desberdinak erakutsi zituzten Erketz EDTko kideek Okendo plazan. TXINTXARRI



'Punta Motz' izan zen aurreneko piezetako bat. TXINTXARRI



Otxagabiako dantza bat, Bobo pertsonaia aurrean zela. TXINTXARRI



Udal Musika Eskolako ikasleek bi kontzertu eman zituzten hilaren 17an eta 18an. TXINTXARRI



Hilaren 23an piztuko dute San Joan sua, Andatza plazan. TXINTXARRI

Motorrak berotzen segiko dute

Argazki galerian jaso ditugunak izan dira San Pedro Jaien aurrekarietako batzuk: Biyak Bat adinekoen egoitzako mahai jokoak, Alboka Abesbatzaren nahiz Erketz Euskal Dantza Taldearen ikasturte amaierako emanaldiak, Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertuak eta Scooter Club Euskadi elkarteak antolatutako Vespa eta Lambretta motorren rallya.

Herritarren motorrek hartu dute temperatura honezkero baina txupinazora are beroago iritsi daitezten ekimen gehiago aurrera eramango dituzte datozen egunetan:

- **Hilak 23, igandea, 09:00etatik 15:00etara:** familia mendi martxa egingo du Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteak. Okendo atzealdetik aterako dira parte hartzaileak. Izena emateko epea bukatu dela jakinarazi dute antolatzaileak.
- **Hilak 23, igandea, 21:30ean:** San Joan bezpera ospatzen hasiko dira. Erketz EDTko dantzari eta musikariak udal korporazioko kideekin elkartuko dira eta Andatza plazarantz abiatuko dira denak batera. Sokadantza eta San Joan zortzikoa dantzatuko dituzte enparantza horretan, Alboka Abesbatzaren eta Zero Sette akordeoi orkestraren laguntzarekin. 22:00etan piztuko dute sua.
- **Hilak 25, asteartea, 10:00etan:** Biyak Bat adinekoen egoitzako kideek gimnastika erakustaldia egingo dute Maialen Chourraut kiroldegian.
- **Hilak 26, asteazkena, 18:00etan:** mahai jokoetako garaikurrak banatuko dituzte udal ordezkariak Biyak Bat elkartearen. Luntxa egingo dute ondoren.

Tintorería **Lizardi** Tindategia

Uistin kalea 6
LASARTE-ORIA
610 28 61 05
tintolizardi@gmail.com

ondo pasa
jasetan!

Mota guztietako ehunak garbitzen eta lisatzen
espezialistak (edredoiak, mantak, alfonbrak,
ezkontza soinekoak, jaunartzea...)

Aukera
beganoa
dugu!

TABERNA
Buenetxea
KAFETEGIA

FESTETAN, ONDO JAN!

• Ogitartekoak • Hanburgesak
• Sandwich-ak • Entsaladak
• Bakailao • Txuleta

DASTATU ERE:
• Batido naturalak • Kotelak
• Gin-tonic bereziak
• Mojitoa • Kaipiroska

Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria ! Tel. 943-36 95 08

Ondo pasa
HERRIKO JAIETAN!!



LASARTE-ORIAKO UDALA



ORMAZABAL LORADENDA

Ingurumenarekin arduratuta

Landaberrin nahiz Sasoetan ikasten ari diren Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. maila arteko ikasleek ingurumenari buruz landu dutena partekatu dute udal gobernuko zenbait ordezkariarekin, udalbatzar aretoan. Aurtengo ikasturtean pil-pilean dauden hiru alor jorratu

dituzte gaztetxoek, ikasmaita bakoitzeko kideek bana: landaredia, energia eta hondakinak.

Programa hori diruz laguntzen du udaleko Hezkuntza sailak eta Artelatuz Ingurumen Zerbitzuak aurrera eramaten du.

Mendeurrenari aitortza

Ormazabal loradendak 100 urte bete ditu aurtengoa eta aitortza bat baino gehiago jaso dute dagoeneko. Azkena, Gipuzkoako Merkataritza Federazioarena, hilaren 16an, Getariako Balenciaga museoa. Establezimendu horren jabe Ramon Ormazabal eta Coro Ortegak pozarren jaso dute erakundearen aintzatespena.



LASARTE-ORIAKO UDALA

Sariak zozkatu dituzte

Buruntzaldeko udaletako Euskara sailletako arduradunek Gidabaimenak Euskaraz egitasmoa sariak zozkatu dituzte Usurbilen. Irune Erauskin Mirasolainek irabazi du Lasarte-Oriari dagokiona, hau da, 400 euro poltsikoratu ditu gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz

ateratzeagatik. Gure herriko Mugica eta Vallina Cap autoeskoletak parte hartu dute.

Udalek egitasmo bateratua jarri zuten abian, 2009an, gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz prestatzea sustatzeko; ordutik 1.310 lagunek atera dute.

Bigarren eskuko liburu azoka egingo dute Oriarten

Hilaren 24tik 26ra bigarren eskuko liburu azoka aurrera eramango dute Oriarte Larrekoetxe institutuaren. Hiru egun horietan, hurrenez hurren, materiala entregatu (16:00-18:00), erosi (16:00-18:00) eta dirua jasoko (16:00-17:30) dutela adierazi dute, antolatzaileek. DBH 3. mailatik 2. Batxilergora arteko ikasleei zuzendutako egitasmoa da. Oriartekide guraso elkarte-bazkide direnek lehentasuna izango dute eta ez direnek 5 euro gehiago ordaindu beharko dituzte testuliburu bakoitzagatik eta 5 euro gutxiago jasoko dituzte saldutako produktu bakoitzeko. Informazio gehiago, oriarte.hezkuntza.net webgunean.

Pablo Barriok '2074' antzerki liburua argitaratu berri du

Gaur egungo Euskal Herriko kezka eta gogoetetan ardaztutako antzerki distopikoa kaleratu berri du Pablo Barrio idazle lasarteoriatarrak: *2074*. Susa argitaletxeak EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin batera sortutako Ganbila bildumako 25. obra da hori.

Antzerki liburu hori ontzeko "umorea, begirada nostalgikoa eta hitz bidezko jolasa" erabili ditu egileak eta "nortasun handiko pertsonaia berezi eta mai-tagarriak" sortu. Barrioren testuan oinarrituta, Kukuka antzerki eta dantza eskolak eta Semblante Andaluz elkarteak *Lasartoria 2074* antzezlana estreinatu zuten maiatzean.



muebleszubi@hotmail.com

M ZUBI

LASARTE-ORIA

Gettoki Kalea 21 LASARTE-ORIA

Tel.: 943-36 24 67

Ondo pasa San Pedro Jaietan eta gozatu!





Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

Fernández

ehunak

Ondo pasa sanpedroetan!

Kale Nagusia 2 - Tel. 943-36 16 07 - LASARTE-ORIA



'Ibaiaren beste aldean' erakutsi dute, herrian

Oriarte BHI institutuko ikasleek Zinema (h)abian programan parte hartu dute; horren bitartez, 'Ibaiaren beste aldean' filma ekoitzi eta grabatu dute. Bartzelonan egin zuten aipatu lanaren estreinaldia, eta, orain, Lasarte-Oriara ekarri dute, egindakoa herritarrei erakusteko

Txintxarri

Mercero aretoan batu dira zine-magile gazteak lasarteoriatarrekin, eta ikus-entzunezkoaren nondik norakoak azaldu dizkiete. Kontatu dute nolakoa izan den filma hutsetik sortzearen lana. Prozesu horrek iraun bitartean izan dituzten zailtasunak ere nabarmendu dituzte; horien artean, azpimarratu dute ohartu direla talde lanak erabakiak batera hartzea dakarrela, eta hori, askotan, zaila izan dela. Bertaratu direnen txalo zaparrada ederra jaso dute ikasleek, eta aurkezpen saioa amaitu aurretik, diploma bana eman dieten institutuko irakasleek.



Oriarte BHlko ikasle eta irakasleak egindako lana herriarrei aurkezten. TXINTXARRI

Unai Granado, Realaren jaiari

Udal Musika Eskolako ikasle Unai Granadok panderoa jo zuen Erreala Fundazioaren jaiari, hilaren 16an, futbol taldearen Reale Arena (Anoeta) estadio inguruetan. Bere irakasle Miren Etxenagusiarekin aritu zen gaztetxo Donostian. Etxenagusiak kontatu duenez, arratsaldean kale buelta bat eman zuten trikitilariarekin batera, 15:00etatik 16:30era.



MIREN ETXENAGUSIA

Emakumeen Aldarria taldea aurkeztuko

Larunbat honetan, hilak 22, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo andreei zuzendutako egitasmo bat aurrera eramango dute San Pedro parrokiako lokalean, 11:30ean: Emakumeen Aldarria izeneko taldea aurkeztuko dute. Mugimendu horren aldekoek berdintasuna eta duintasuna aldarrikatzen dituzte emakumeentzat.

Udal Musika Eskolan matrikulatzeko azken

Udal Musika Eskolan ikasi nahi dutenek hilaren 28a (ostirala) baino lehen matrikulatu beharko dutela jakinarazi dute arduradunek. Tramite hori egin behar dutenek kultur etxeko bigarren solairura joan beharko dute, 09:00etatik 14:00etara. Goizez ezin dutenek arratsaldean egin ahalko dute matrikula hilaren 24an eta 26an, 17:00etatik 19:00etara.




Aterpeak gonbidatzen zaitu:

SARDINA-JATEA

Ekainaren 29an,
18:00etan Okendo plazan

*Herriko merkatariek
jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*



Zurekin kontaktzen dugu!



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN BUEN TRATO



"Euskal Irria" zabaltzen ari dira Katxiporretako pailazoak

Tolosako sanjuanetako txupinazoa jaurtiko du Pirritxek gaur, hilak 21, 18:00etan, udaletxeko balkoitik

Txintxarri

Bi berri "oso pozgarri" zabaldu ditu Katxiporretak egunotan: batetik, Tolosako San Juan Jaietako txupinazoa jaurtiko duela Pirritx pailazoak gaur, hilak 21, 18:00etan, Plaza Zaharrean dagoen udaletxeko balkoitik; eta, bestetik, Porrotx irri, kantu eta dantza egiten izan zela Aspanovas Bizkaiko Haur Minbizidunen Senideen Elkarteak hilabete hasieran aurrera eraman zuen festan.

Aiora Zulaikak ematen dio bizia Pirritxi eta 25 urte dara-



Porrotx, Aspanovas-en jaialdian. KATXIPORRETA

matza zeregin horretan. Hori dela eta, Tolosako Udalak aitortza berezia egin dio berari eta baita lagun dituen gainerako pailazoei ere: "Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo taldeak hiru hamarkada baino gehiago daramatza Euskal Herriko txoetara bizipoza eramaten, balio eraikitzaile eta gai sozialak azaleratuz. Euskarari eta euskal kulturari egin dioten ekarpena nabarmena da, gainera, haur eta gaztetxoekin".

Bestalde, Aspanovas elkarteak kideek Ausartak saria eman zieten pailazoei, "urteotan guztian haur minbizidun eta beraien senideekiko erakutsitako gertutasun, alaitasun eta berotasunagatik".

Aipatu bi aitortza horiek are indar gehiago emango die, "Euskal Irria" zabaltzen segitzeko.



TXINTXARRI

Lanak ikusteko azken eguna

Brancussi margolaritza akademiako ikasleek ikasturtea amaitu dute, eta ohitura bilakatu den moduan, ikasitakoa erakusten duten lanekin bete dute Antonio Mercero aretoa. Hormetatik zintzilik dauden koadroez gain, koloreztatutako kutxa batzuk ere badira. Gaurkoa da lan horiek ikusteko azken eguna, hilak 21, 18:00etatik 20:30era.



TXINTXARRI

Elkartez elkarte, bertsoan

Lasarte-Oriako Transmaribollo Kolektiboak antolatuta, bertso-poteo transfeminista aurrera eraman zuten hilaren 14an. Ttakunenea elkartean batu ziren eta lehen tragoarekin batera, Amaia Agirre eta Maider Arregi bertsolariak lehen lanak egin zituzten.

Ibilbideko hurrengo geltokira abiatu aurretik jolas bat proposatu zieten aurrean izan zituzten hogeitabat laguneri: beraiek puntu bat abestu eta horren erantzuna den hitza asmatzea, alfabetoaren hurrenkera jarraituta. Lehia izan zen, baina barre artean.



TXINTXARRI

Lurra eta hatsa, solaskide

Solaskide egitasmoa partaideek ikasturte amaierako festa egin dute Jalgi kafe antzokian. Zerbait hartu bitartean Julen Basterra eta Iban Nikolai musikariek osatutako Lurhats bikotearen kontzertuaz gozatu dute. Labetik atera berri duten *Sendagai* diskoa aurkezteko baliatu dute aukera hori, gitarra eta *didgeridoo* izeneko instrumentuak fusionatuta.

AZPEITIA

Ondo pasa festetan!

Blas de Lezo, 1
20160 LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 18 70
Fax: 943-36 21 79
mueblesazpeitia@gmail.com
www.mueblesazpeitia.com

Ainhoa Egoña Solano

AES

Ile apaindegia

943-37 02 54
Blas de Lezo kalea, 5 behea

ANTONIO URRUZOLA

Ondo pasa festetan!

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

Etor zaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain poligonoa, 3. pabilioia USURBIL
Tel./Faxa: 943-37 64 15 Mugikorra: 687 84 55 99
www.carpinteriaantoniorruzola.com



Gazteen problematikei soluzio eman asmoz

Eragile ezberdinetako herriko zenbait gaztek elkartuta sortu dute LOGA Lasarte-Oriako Gazte Asanblada. Espazioen problematikari irtenbide eman asmoz batu direla azaldu dute ekimena aurkezteko prentsaurrekoan

Txintxarri

Lasarte-Oriako gazte mugimenduetako zenbait partaidek Lasarte-Oriako Gazte Asanblada aurkeztu dute berriki. Bertako kideek jakinarazi dute gazte lasarteoriatarrek dituzten arazoan diagnosi bat egiteaz gain, analisi hori udalari helarazi diotela; hainbat kezka bildu dituzte aipatu dokumentu horretan, eta horien berri eman dute prentsaurrekoan.

Gaztelekua izan da lehen adibidea. Azaldu dute gazteek ez dutela horretan inolako esku hartzerik, eta nekez asetzen dituela euren beharrak.

Etxebizitzaren problematikaz mintzatu dira gero. Azpimarratu dute gai horrekiko arazoa "oso agerikoa" dela Lasarte-Orian, eta bereziki gazteei eragiten dien gaia izanik, hortaz hitz egiteko espazio baten beharra aldarrikatu dute.

Udalak eskaintzen dizkien egitasmoen aritu dira gero, eta esan, horiek ez direla euren beharretara egokitzen: "Herritarron ahotsa kontuan ez hartzeaz gain, eskaintza gehienak ordainpekoak dira".

Gazte eragileetako partaideak

Agerraldiarekin aurrera eginez, gogorarazi dute Lasarte-Orian



Lasarte-Oriako Gazte Asanbladako kideak egitasmoa aurkezten. TXINTXARRI

herritar asko direla askotariko gazte eragileetan parte hartzen ari direnak, eta horien guztien jarduna aurrera eramateko, "era libre eta autogestionatua bilteko espazio baten beharra" galdegin dute: "Instituzioetatik kanpo antolatzeke eskubidea

"HERRITARRON AHOTSA KONTUAN EZ HARTZEAZ GAIN, ESKAINTZA GEHIENAK ORDAINPEKOAK DIRA"

aldarrikatzen dugu, udalak ez baitu gure iritzia kontuan hartzen".

Azken urteotan euskararen erabilerak beheranzko joera hartu duela ere mahaigaineratu dute, eta salatu, udalak horren aurrean ezer egin ez izana: "Hori ikusita euskara erdigunean jarriko duen espazio bat aldarrikatu nahi dugu".

Herritarrei dei eginez amaitu dute agerraldia: "Problematikak ugariak direla ikusita, dei egiten diogu Lasarte-Oriako gazte orori gurekin batera antolatzeraz".



NEURE KABUZ
GORKA LASA

Gaua

Nahiz eta goiz argitzen duen urte sasoi honetan, ilunpetan egiten dut lantokirako bidea, kalean inor gutxi dabilen ordu horietan, errepidea eta semaforoak jartzeke dauden orduetan, oso goiz. Iluntasunak badu bere xarma, bere bizitza, bere argia.

Gaua oihal ilun bat da, egunero zabaltzen dena, egunaren amaiera eta atsedeneren hasiera markatzen dituena. Eguzkiaren erortzearekin batera, zerua tonu sakonez tindatzen da, lehenik itsas urdinez eta gero, iluntzen doan heinean beltzez, milaka urteko istorioak kontatzen dituztela diruditen izarrez ziprztinduta. Gauean, mundua eraldatu egiten da. Egunez zalapartatsuak eta aktibitatez beteak diren hiriak, lasaitasun barea hartzen dute. Farolen eta eraikinetako argiek, argi mehe eta epelez argizatzen dituzte kaleak, eszena ia magiko bat margotzen duten itzalak eta islak sortuz. Soinuak ere aldatu egiten dira; trafikoaren murmurioa moteldu egiten da, kilkerren kantuari eta ezezagunak egiten zaizkigun hots eta zaratei bide emanez. Askorentzat gaua lasaitasun garaia da. Pentsamendu sakonenak azaleratzen diren eta sormena loratzen den unea da. Beste batzuentzat berriz, amaigabeko amets gaizto izan ohi da, beldurrez, ikaraz, lo eta atsedean hartu eziniko unea.

Gauak sekretuak ere gordetzen ditu. Bere iluntasunean eta misterio kutsu horren atzean, maitasun istorioak, topaketa klandestinoak eta beteko diren ametsak ezkututzen dira. Espazio horretan, irudimenak ez du mugarik, eta errealitatea eta fantasia elkarrekin lotu daitezke epairik gabe.

Bizitakoa atzean utzi eta egunsenti berri baterako bidea ematen digu gauak, egun berri baten promesa, aukera eta itxaropen berriz betea.

Gaua guztiek omen dute hasiera bat eta amaiera bat. Aurtengo ikasturtea iritsi da bere amaierara, beraz, honekin batera, bukatu da goizean goiz ilunpetan lantokirako bidean, aukera eta itxaropen berrien bila, errepidea zeharkatzen duten trikuak saihesten ibiltzearen arriskua. Hemendik aurrera ordu txikietan ikusten banauzue, ez da lanerako bidean izango. Ondo pasa San Pedroak!

Aldizkari honetakoa izan da gure zutabegile taldearen ikasurte honetako azken kolaborazioa. Oporrak hartuko dituzte eta iraillean itzuliko dira gogoetagai gehiagorekin. Orain arte idatzi dituzten artikuluguztiak www.txintxarri.eus atari digitalean kontsulta ditzakezue, Neure kabuz izeneko kanal berezian.



Ondo pasa festak!
zerbitzu mistoa

Lucia ile-apaindegia
Kale Nagusia 67, LASARTE-ORIA ☎ 688851750



OSTALARITZA ETA SALTOKIETAKO EKIPAMENDU INSTALATZAILEETAN ESPEZIALISTAK

PLAZA ARALAR, 1 | LASARTE-ORIA
TEL.: 943-37 13 13
www.gesbox.net





Vasconia, Jose Martija Txapelketako irabazle

Hamabi futbol taldeetako alebinek Jose Martija VII. Futbol Txapelketa jokatu dute hilaren 15ean Michelinen. Vasconia gailendu da, finalean Realari irabazita. Ostadar SKTk, berriz, UEFAko finala Real Unionen kontra galdu du. Mikel Etxarri omendu dute hasi aurretik

Txintxarri

Goizetik arratsaldera baloiarekin jokoan aritu ziren hilaren 15ean, alebinen lehen mailako hamabi talde. Jose Matijaren omenezko txapelketan lehiatu ziren, haren-gandik ikasi zutenek eta senideek zarpigarrenez antolatu dutena, eta aurrekoetan bezala, askoren interesa piztu zuen.

Lehen bi partidak hasi aurretik, Mikel Etxarri herritarra omendu zuten. Bitan banatuta, zelaian ariko ziren lehen lau taldeetako jokalariek eta epaileek txalo artean agurtu zuten zelaira sartu zenean eta Matijaren alargun Nieves Lopezk jantzi zion txapela.

Txapelketaren lehen zatian, Ostadar SKT, Texas Lasartearra CF, Racing Santander, SD Eibar, Real Sociedad, Martutene KE, Añorga KKE, CD Vasconia, Irungo Real Union, Villabona FKE eta Antiguoko KE hiru multzotan banatuta jokatu zuten.

Ligaxka bukatuta, talde bakoitzeko lehen biak eta bi hirugarren onenak Champions League delakora sailkatu ziren, gainerakoak, aldiz, UEFA delakora. Horiei bazkalondoren ekin zieten. Kontsolamendu taldeko finalean Real Union gailendu zitzaion Ostadarri. Final nagusian, berriz, Vasconiak irabazi zion Real Sociedadari.

Zelaiaren albo batean jarritako oholtzan beren saria jaso zuten taldeek, epailei aitortza egin ondoren.

Igo aurretik, jokalariek guztiek domina bana jarri zieten lepotik zintzilik.

Talde bakoitzari zegokion kopa banatzeko ardura, berriz, aldatzen joan zen batetik bestera. Hamabi sarietako lehena Udaleko Kirol Zerbitzuko buru Goizalde Pildainek eman zuen, sari nagusia, Agustin Valdivia alkatetik, eta tarteko gainerakoak Los chavales de Martija elkarteko kideren batek edota Ventanas Alcar eta Iñaki tabernako arduradunek.



Vasconia taldeko jokalariek eta entrenatzailea, pozik koparekin. TXINTXARRI



Ezkerrean, Etxarri omenaldia eta eskuinean, txapelketako neurketa bat. TXINTXARRI

Hirugarrena, poltsikora

Aiora Belarteta eta Nahia Goenaga kide dituen Donostia Arraun Lagunak Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak eskuratu ostean, hilaren 16an Espainiako txapelketa ere eskuratu du Donostiako Kontxako badian. Lugañene nagusi izan zen eta 27 segundoko aldea aterazi zion bigarren ontziari, Oriori. Hirugarren Donostiarra Kaiarriba izan zen, 59 segundora.



JUAN ANTONIO GARAICOETXEA / DONOSTIA ARRAUN LAGUNAK

Chourraut, bigarren

Eslalom olimpiako Munduko kopako hirugarren jardunaldia lehiatu zen hilaren 13tik 16ra, Krakovian (Polonia). Maialen Chourrautek, finalera sailkatzeaz gain, bigarren postua eskuratu zuen. Lasarteoriarrak ezin izan zuten Jessica Fox australiarrek ezarritako marka gainditu eta Olinpiar Jokoetan bien arteko lehia handia izango dela ikusi zen.



RFEP

MERKEALDIA

2 MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15.
LASARTE-ORIA

www.multipopticas.com





Ostadarreko bikoteak, hondartza boleiboleko Gipuzkoako finaleran

Olaia Laboa eta Odalys Caceres bikoteak Bera Bera garaitu du; iaz junior mailan eskuratutako titulua mantendu dute

Txintxarri

Hondartzako Boleiboleko denboraldia hasi zen maiatza amaieran, maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketak jokatu dira asteburu ezberdinetan. Hilaren 8an, absolutu mailako lehiaketa izan zen Donostiako Zurriolako hondartzan eta Ostadarreko bi bikote izan ziren finaleran: Olaia Laboa-Odalys Caceres eta Ruben Mendoza-Alex Acuriola.

Haizearekin eta euripean jokatu behar izan zituzten partidetakoz; horrela izan zen, behintzat, Ostadarreko Olaia Laboa eta Odalys Caceres bikoak Bera Beraren aurka lehiatuta koan.

Urdin-beltzek lasai egin zuten aurrera kanporaketetan eta finalean aurkari gogorra aurkitu zuten, Bera Bera. Finala borrokatua izan zen, baina Laboa eta Cacererek, iaz 19 urtez azpiko



Ostadarreko kideak, sariarekin. OSTADAR BOLEIBOLA

lehiaren antzera, Gipuzkoako txapela eskuratzeari lortu zuten.

Mutilen finalean ere Ostadarrek ordezkariak izan zituen, Ruben Mendoza eta Asier Acuriola. Toloboleiko bikoaren aurka egin zuten urdin-beltzek eta ezin izan zuten garaikurra jaso.

Lasarte-Oriako atletak, ederki Euskadiko txapelketan

Naroa Furundarena jauzi hirukoitzeko txapeldun da; Yeray Veronizek zilarra jantzi du 100 m. lasterketan

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak Euskadiko txapelketari aurre egin zioten hilaren 15ean eta 16an, Durangon. Herriko hamabi ordezkari izan ziren lehiaren, hainbatek finaleran parte hartu zuten eta bik domina jantzi zuten; Ostadar SKTko Naroa Furundarenak urrezkoa jauzi hirukoitzeko eta Real Sociadako Yeray Veronizek zilarra 100 m. lasterketan.

Furundarena hasieratik buru jarri zen 12,61 metroko jauziarekin eta laugarren saiakeran ia 13 metroetara iritsi zen; 12,99 jauziarekin urrea eskuratu zuen.

Veronizek, aldiz, ezin izan zuten bere taldekide Daniel San Juan gainditu 100 m. lasterketako finalean. Herritarra 11 segundotatik jaitsi zen bai sailkapen proban, baita finalean ere eta 10,83 markarekin zilarrezko domina eraman zuen etxera.



Furundarena, artxiboko irudian. PFEA/MIGUELEZ TEAM

Lehen postuetan

Horiez gain, Ostadarreko Oinatz Almagro laugarren izan zen jauzi hirukoitzeko (13,24 m.), taldekide Oihana Igarriz bosgarren disko jaurtiketan (34,64 m.), Aiala Ramos seigarren xabalina jaurtiketan (31,04 m.) eta zazpigarren Eider Redondo altuera jauzian (1,55 m.). Atletico San Sebastian taldeko kide Nerea Eugi ere zazpigarren izan zen 100 m. lasterketan (12.67).



Martin (erdian), sariarekin. L. MARTIN

Martin, urtetako ibilbidearengatik saritua

Hilaren 7an, Gipuzkoako Futbol Federazioak 2023/2024 denboraldian egindako ibilbide, lan edo jardueragatik garrantzia izan duten pertsona, klub eta erakundeak saritu zituen eta horietako bat izan zen Lander Martin herritarra. Areto Futboleko egin duen ibilbidearengatik jaso zuen erretiratu berri den jokalaririk onargarria.

SPJ txapelketa

Bestalde, hilaren 21etik 29ra, areto futboleko San Pedro Jaiak I. txapelketa jokatu dute hamasei taldek. Multzotako lehia hilaren 21etik 23ra izango da kiroldegian zein Michelin kirol gunean; azken fasea, aldiz, San Pedro egunean Zabaletako kirol gunean.

Parisko Olinpiar Jokoak lez

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko Gimastika Erritmiko saileko kideek Parisko Olinpiar Jokoak ekarri zituzten ikasturte amaierako erakustaldira. Maialen Chourraut kiroldegiko harmailak senidez bete ziren eta maila ezberdinetako gimnastek euren lanak erakutsi zituzten. Hilaren 21ean, ostiralarekin, 18:00etan Judoko sailaren txanda izango da.



TXINTXARRI

Manso, hirugarren

Espainiako Mendi igoeran estatu osoko hemeretzi gidari bildu ziren hilaren 15ean eta 16an, Andorran, Arinsal igoera jokatzeko. Horien artean, Aitor Manso herritarra izan zen eta hirugarren kategoriako brontzezko postua eskuratu zuen gidari gazteak, bigarrenetik ehuneko gutxitara. Lehia borrokatua eta intentsoa izan zen herritarraren aburuz.



A. MANSO

pikabea

Aseguru artekaritza
Aseguru mota guztiak.
Eskatu aurrekontua!

Gozatu festak!

Uzturre plaza, 8
LASARTE-ORIA
Tel.: 943-37 11 18
pikabea@pikabeaaseguruak.com

SUGATE SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

Ondo pasa festak!

Pintore kalea, 5 Lasarte-Oria | Tel: 943-36 14 71 | www.sugatecocinas.com

adats

ile-apaindegia

Gora Lasarte-Oria!
Gora San Pedro Jaiak!

Geltoki kalea, 3
MUGIKORRA: 600 52 39 88
LASARTE-ORIA



"Zaletasuna da; ez da inork inposatua"

JAVIER ZATARAIN ABAD

Hamaika elkartetan ibili da Javier Zatarain Abad lanean, besteak beste, SD Euskalduna Andoaindarra. Elkartearen mendeurrena aitzaki, liburu bat argitaratu berri du

Nerea Eizagirre

ATLO elkartean edo Zero Sette edo Suberri akordeoi orkestran laguntzaile, kirol edo kultur ekimen ugariaren argazkilaria... Javier Zatarain Peña (Andoain, 1951) ezaguna da Lasarte-Orian, baina jaiotzez andoaindarra dugu eta lotura handia du Buruntzaz beste aldeko herriarekin. Urtetan *Diario Vasco*ko Pepe Narcue kronistaren argazkilaria izan zen eta SD Euskalduna Andoaindarra elkarteko jarraipena egin zuen argitalpen horretarako. Elkarteko zuzendaritzako kide ere izan zen 30 urtez -1978tik 1998ra eta 2008tik 2018ra-. Hil hasieran elkarteko mendeurrena gogora ekartzen duen *SD Euskalduna Andoaindarra. Fundazioaren 100 urteak* liburu argitaratu du.

"Urtetako lana da hau. Ezin da denbora zehaztu; hemerrotekan eta federazioan egunak egin ditut. Ezkongabea nintzela hasi nintzen guztia jasosten, beraz, pentsa", onartu du Zatarainek. 1940 urtetik gaur eguneraino elkartearen neurketa guztien aktak ditu eta atezain edo jokalaritaren baten estatistikak emateko gai da.

Liburuan Erregional zein Jubenil mailako lehen taldeen fitxa eta bakoitzeko jokalarien zerrenda ikusgai dago, baita entrenatzaileen eta lehendakariaren ere.

Eta guztia datu estatistikoez lagunduta dago.

Hemerroteka zatia ere badu; 1923an sortu zenetik elkartek izan dituen gorabeherak azaltzen dituen egunkarietako zatiak ikus daitezke. "Hemerroteketan begiratu behar izan dut, 1940 urtea baino lehen ez dago elkartearen erregistrorik, ezta federazioako aktarik ere," azaldu du Zatarainek. Eta azkenik, talde guztien argazkiekin osatu du beste atal bat.

Igoera lortu

Taldearen historiari begira, 1961ean 3. mailara igo zirenean urrezko urteak izan zirela nabarmendu du: "Orduan 1. Erregionaletik 3. mailara egiten zen jauzia. Ez da gaur egun bezala. Sei denboraldi egin zituen bertan. Jokalari ezagunak izan ziren urte horietan Realak fitxatu zituen Jose Ramon Esnaola atezaina edo Jose Miguel Arregui aurrelaria. Lasarte-Oriako, orduan Lasarte, jokalariek ere bazeuden, Julio Arcos edo Luis Goyaran, esate baterako". Horrez

gain, talde hori Gipuzkoako kopa jokatzera iritsi zela ere aipatu du: "Urte berean, lehen taldeak eta jubenilek lortu zuten finalera iristea. Atotxan jokatu zuten eta biek galdu zuten. Ez da gutxi finalera iritsi izana".

Andoaingo taldearen herriko jokalaritaren eta entrenatzaileen ugari izan direla ere zehaztu du.



Javier Zatarain, liburuaren ale batekin. TXINTXARRI

Ondoko koadroan erregional mailan ibilitako herritarretako batzuk. "Entrenatzaile modura, Luis Brit, Luis Mari Etxarri, Tito Prieto edo Arkaitz Illarramendi ere izan dira eta beheko mailetan edo nesken taldean ere izan dira," gehitu du.

Lasarte-Oriako herritarren batek liburu eskuratu nahiko balu, Andoaingo Stop liburutegira jo beharko lukeela azaldu du, eta argi utzi du guztia musutruk egin duela: "Nik ez dut dirurik lortzen honekin".

Zaletasuna, besterik ez

Afizioz egiten du. Goizeko 06:00etan jaiki eta zereginetan hasten da: "Estatistikak gustuko ditut, antzinako egunkarietako errekorreak eta hemerrotekan gauzak begiratzea. Zalaletasuna da; ez da inork inposatua, ez da lana. Guztia informatikoki dut artxibatua, Acces bidez. Argazkiak eta negatiboak ere pasatzen ari naiz pixkanaka. Egunak motzak dira niretzat".

Eta *Andoaindarra de futbol* Facebook orrialdea ere elikatzen du: "Argazki zaharrak, istorioak... oraingo gazteak ez dira sartzen, baina nire garaikoez gustura irakurtzen dituzte. Orain jubenilen fitxak argitaratzeko lanean ari naiz".

Euskaldunaren gainean, liburu eta liburuxkak ere prestatu ditu, hala nola, 75. urteurrenean eta 90. urteurrenean egin zituen. Batzuk alde batera utzita dituela onartu du: "Nesken taldearen liburu argitaratzea gustatuko litzaidake, baina linboan dut. 3. mailan egindako denboraldien gainekoa ere buruan dut. Ezin naiz ezer egin gabe egon. Orain txite ordenagailua kenduko baldade, hilko nitzateke". Eta ahal duenera arte, "bere eguneroko lanak" egiten jarraituko duela esanez amaitu du elkarrizketa.

Herritarrak, Erregionalen

- Asier Caro
- Javier Cepeda
- Aritz Curiek
- Miguel Angel Diez Sebastian
- Jon Andres Esnal
- Francisco Fernandez Blanco
- Raul Garcia Calleja
- Luis Goyaran Eizmendi
- Angel Imaz Beloki
- Carlos Infante Masa
- Jose Antonio Irulegi Garmendia
- Gurutz Iturbe Urretabizkaia
- Eliseo Lizarraga Ruiz
- Jose Ramon Maiz Eizmendi
- Joxean Alberdi Collantes
- Julio Arcos Rodriguez
- Jose Ignacio Aristondo Agirre
- Miguel Aristondo Agirre
- Igor Artola Arnedo
- Sebastian Azpiros Illumbre
- Santiago Bardaji Olloquiegi
- Jose Mari Bardaji Olloquiegi
- Tomas Bardaji Olloquiegi
- Francisco Javier Bardaji
- Jose Angel Beldarrain
- Luis Maria Brit
- Julio Marigik Merino
- Mikel Mauleon Antonio
- Francisco Navarro Galvez
- Jose Otero Villanueva
- Ekaitz Sagardia Peñagarikano
- Benigo Valin Marzan
- Gabriel Valin Mazan
- Gorka Vicente Sanchez

**%30eko
DESKONTUA**
eguzkitako
betaurrekoetan



IRIGOYEN

OPTIKA

Ondo pasa eta gozatu festak!



Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943-37 10 47



ZORION AGURRAK



Lorea
Zorionak Loretxu zure 13. Urtebetzean, aita, ama eta Oihanaren partez. Asko maite zaitugu!!!



Izei
Zorionak, Izei! Ondo ospatu eta segi han eta hemen adarra jotzen. Asko maite zaitugu! Familia eta lagunak.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

· txintxarri.eus/zorionagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/
Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostitirlean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAK: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 21	URBISTONDO
LARUNBATA, 22	URBISTONDO
IGANDEA, 23	URBISTONDO
ASTELEHENA, 24	GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 25	DE ORUE
ASTEAZKENA, 26	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 27	ACHA-ORBEA
OSTIRALA, 28	GIL
LARUNBATA, 29	LASA
IGANDEA, 30	LASA
ASTELEHENA, 1	LASA
ASTEARTEA, 2	URBISTONDO
ASTEAZKENA, 3	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 4	DE ORUE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA

22:00-09:00

Florida farmazia:

Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani.

943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean.

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

OHARRAK

Tourreko porra egiteko egunak

Ostadar SKTk antolatzen duen txirringularitza porra egiten duten herritarrek adi egon beharko dute hurrengo egunetan; Tourra Florentzian (Italia) hasiko da hilaren 29an, larunbatarekin eta horrekin batera porra ere martxan jarriko da.

Kirol elkarteak aste horretan ohiko tabernetan porra egiteko txirringularien zerrendak eta boletoa banatuko ditu eta horietan zein elkarteko webgunean (ostadarskt.eus) txartelak bete ahaliko dira hilaren 29ra arte.

Kirol jardueren izena ematea

Udal kirol Zerbitzuak 2024-2025 ikasturteko kirol-jardueren izena emateko epea ireki du, eskainitako plazak bete arte.

Kiroldegiko abonatuak inskripzioa tramiteak.buruntzaldea.eus webgunean egin dezakete; abonatuak ez direnek, aldiz, kirolak.buruntzaldea.eus webgunean, kiroldegiko bulegoan edo 943-37 61 82 zenbakian.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago. Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

17 urteko neska euskaldun bat naiz, Batxilergoa egiten ari dena Zientzia alorretik. Udan zehar haurrak zaindu eta eskolak em-

teko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

21 urte ditut eta udaran haurrak zaintzeko lan bila nabil. Interesa izanez gero harremanetan jarri zaitzake, 634 41 95 78.

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldian, garbiketa lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozein lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko eskaintzen da. Esperientzia du, baita informazio ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea eskaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia

eta informeeekin. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

Hurrengo **txintxarri** paperean

uztailaren 5ean argitaratuko dugu

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak:
Nikola Iraola, Xuban Urdaleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez eta Ander Hazas.
Zintiloaren irudiaren egilea:
Argote Martin

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



SUDOKUA


U		R	E		
	S		A		U
	U			E	R
T				S	
S		U	R		
R			S		T

Hodeiak saretzen direnean, zerua ageri da. Bete itzazu hutsuneak SARETU hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (S, A, R, E, T eta U). Kontuan har hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 9.



Zenbat



Zenbat txita dabilta inguru harrigarri honetan?



Eta zenbat txori edo hegazti ikusten dituzu? (Oiloak ez ditugu kontuan hartuko)






HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA




Mendira Gure laguntxoek hauxe behar dute mendira joateko: iparrorratza, laban bat, telefono bat, argazki-kamera bat, eguzkitako krema, bisera bana, kantinplora bana, bina goxoki, bizkar-zorro bana, sagar bana, ogitarteko bana eta betaurreko bana. Dena al daukate?



Zeeer?!

Jarri iruditxo bakoitzari bere hizkia, eta esaera zahar bat azalduko zaizu. Erabili hizki-marrazki alfabetoa.



Labirintoa

Zer bide egin behar du urak iturrira iristeko?

Itzalaren aldeak



Beginatu bi irudi hauei. Itzala ez da erabat zuzena, ezta? Aurki itzazu bien arteko aldeak. Hamabi dira guztira.

Eman zure gustuko koloreak saltari trakets hauei.





GESTORÍA / FINCAS / INMOBILIARIA

Betelū

BERME TALDEA



- Gestoria**
- Aholkularitza**
- Inmobiliaria zerbitzuak**
- Aseguruak**
- Etxebizitzen administrazioa**

Betelu BERME TALDEA
 Aralar plaza, 6 behea
 20160 Lasarte-Oria
 943-36 48 86 | 666 40 91 94
 betelu@berme.eus

Ekainak 29, 17:00etatik aurrera.

Zatoz Euskotren Ligaren hasiera bizitzera Urbilera.

Jarduerak, zozketak, estropadaren emanaldia, eta askoz gehiago!





Ondo pasa San Pedro Jaietan!

Uraitz, s.l.



Igeltseritza Orokorra

• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAI-
LEAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ
BOTATAKO ARTELAZKIA) ETA
S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU
GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA
DUTXA EXTRALAUARENGATIK
EGUN BAKARREAN

Telefonoa

693 05 93 92
943-56 66 40

uraitz@uraitz.com

www.uraitz.com

BULEGOA:

HIPRODOMO ETORB. 10 BEHEA 3
LASARTE-ORIA

LUIS CAR

autobusak

Gora Lasarte-Oria! Gora sanpedroak!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943-36 63 16 • Mugikorra: 629 46 18 97 • luisarbus62@hotmail.com

LASARTE - TOLOSA - ELGOIBAR

EZ GALDU AUKERARIK UDA HONETAN!

TITANIOZKO INPLANTEETAN
PROMOZIO BERRIA!

GORA SAN PEDRO JAIAK!

